

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroarekiko edukiko dugu harreman mota konbinatua izango da. Alde batetik, erabiltzaileei sor diezazkieken galderak erantzuteko programa automatizatu bat egongo da aplikazioan. Bestalde, laguntza pertsonala jasotzeko, bezeroek beraien iradokizun eta kezka pertsonalak aipatzeko eta galdetzeko aukera izango lukete, posta elektronikoaren bidez.

Gure enpresak bezeroak erakartzeko hainbat motibazio edukiko ditu: bezero eta kontsumitzaile berriak lortzea, enpresak dituen bezeroei eustea eta azkenik salmenta kopurua handitzea. Helburu hauek lortzeko, hainbat ideia ditugu:

- Ikasle bakoitzak mezuak jasoko lituzke, bere ikasketen berri emanaz. Esate baterako, notak jetsiko balitu, grafikoan marra beherakorren bat aterako litzateke eta abixu larri bat jasoko luke. Alderantziz, hobetuz badoa, zoriontzen duen mezu bat.
- Bakoitzak gutxienez behar duen nota lortzen bada, kolore berdez adieraziko dira, eta bestelakoak gorritz, bisualki errezago ikusteko eta norbere burua animatzeko edota bide onetik ala txarretik doan jakinarazteko.

lido horretatik, bezeroen iraupena bermatzeko, ondo legoke jakitea, aplikazioak iragarkirik gabe duen erabiltzaile horietako bakoitzak kodigo bat sortzeko aukera izango duela. Honek, beste pertsoneni gomendatu eta haiek aplikazioa eskuratuko balute, diru kantitate txiki bat berreskuratzeke aukera izango lukete, "Cashback" moduan.